

## EDUKAZIOA GERRA UNIBERTSAL BIHURTUZ GERO

Ni, lehen liburutik, ondorio honetara iritsia naiz: gerra, kultura orientala bezala non sortua den, partikularitate existentziala da, ez da unibertsala, egiazki existitzen dena (batez ere kultura zorioneko horretan), baina ez da fenomeno unibertsala. Hori hamaika bider errepikatua dut, eta uste dut, ignoratua eta isildua naizenez ez dakit seguru, uste dut jende askoren jakinean dagoela nire ondorio hori (Kristau-ikasbide katoliko berria egin zutenek, kritiken artean izan bazen ere, argiro ere argiro utzi zuten idatzita nola kasuren batean bazitekeela gerra justifikatzea, kasuren batean, baina ez norma-lean, eta niretzat asmatu egin zuten (katolikook ez gara dekadenteak).

Halaxe, lehengo egunean tabernan eztabaida bat eduki nuen bi euskaldunekin, bata EAJren ingurukoa eta bestea Bilduren orbitakoa, eta nazioen independentziaz eztabaidatu genuen. Euren zioten beti dela nazioen historia gerrena eta gerraz erabakitzen dela dena, eta biek deiadarka, oiuhu biziz, erraten zidaten hori, bata nire ezkerrean eta bestean nire eskuman, eta esplikatu ere dena esplikatzeko omen da holaxe. Nik erraten nien salbuespenak bazirela, eta ahotsa altxatuz (ez daukat ohi-turirik, baina derrigortua nengoen, zerbitzaria ere han zegoen adi), erraten nien nola joan zen mendearen hasieran Norvegia independizatu zen Suediatik, demokratikoki, gerra barik. Eta baita kontatu nien Finlandiako kasua Errusiatik, garai berean, gutxi gorabehera, nola independizatu zen, autodeterminazio printzipioa erabiliz. Eta honantzago etorri Letonia, Lituania eta Estonia, horiek ere era baketsuan, aro sovietikoa amaitze-

rakoan. Eta Txekoeslobakiaren kasua ere aitatu nien, elkarri eskuak emanda separatu zirelarik. Baina haien deiadarrak eta oihuak ez ziren geratu eztabaida iraun zuen bitartean. Nolabait arrazioia edukiko balu zarata gehien ateratzen duenak. Nik argi laga nien nire teoria taberna zorioneko hartan.

Atzo bertan iritsi zen gure etxera Soraluzeko Pil pilean hila-betekaria, euskalduna. Eta portada nahikoa adierazgarria zen: Bilduko militante aurreko bat jarrita zegoen harri baten gainean eta lurrean, haren alboan, bi goante boxeokoak. Niretzat arrazios jarrita. Baliteke ere nire begitazioa izatea.

Ematen du denek gerra unibertsal bihurtzen dutela. Bildukoak marxistak direlako (eta marxismoa kultura orientaleko produktu filosofiko bat da, joera iraultzailea) eta EAJkoak kultura orientalaren aldekoak direlako, "kontserbadoreak" (oso borrokazale amorratuak ezagutu izan ditut EAJren ingurukoak). Hor gaude eta oso usua da gerra unibertsal bihurtzea kultura zorioneko horretan.

Hala ere nik uste dut haiek niri kontra egitearren zihardutela, nolabait ezin admitituz desekilibratu bat beraiek baino gehiago izatea. Egia ere bada kultura orientalean oso usua dela gerra unibertsal bihurtzearena, eta lehena gerra unibertsal bihurtzen Heraklito izan omen zen (Guthrie).

Baina ematen badugu gerra unibertsala dela (eta hori dirudi dela ideologia dominantea), nola izan beharko litzateke edukazioa?. Koherenteak izan gaitezten. Edukazioa izan beharko litzateke belizista. Nik hori ez nioke ukatuko nire semeari, ez nuke engainatuko. Prestatu egingo nuke gerrarako irabazle gerta dadin. Eta Arkilokoren poema labur hau ere erakutsiko nioke:

Lantzan dut garagar ogia,  
lantzan Ismaroko ardoa,  
eta edaten dut lantzan apoiatua.

Edo Homeroren pasarte hau, nik aukeratua eta itzulia euskara batura (euskal Akademiari egiten diodan proposamen lexikologikoarekin, hau da, euskara garbia izateko ulergarria izan behar da euskaldunentzat):

"-BOSGARREN RAPSODIA.- Diomederen prinzipalia

Orduan Palas Ateneak infunditu zizkion Diomederi indarra eta ausardia, argibotarretan distira zedin eta irits zezan gloria inmensoa, eta egin zuen haren kaskotik eta haren ezkututik atera zedin sugar etengabe bat, negu aurrean argitzen den astroa bezalakoa eta distiratzen du Ozeanoan bainatu ostean. Halako argitasuna isurtzen zuten heroiaren buruak eta sorbaldek, Ateneak eroan zuenean batailaren erdira, hara non handiagoa zen gudarien numeroa zeintzuek trumilka agitatzen baitziren.

Izan zen Troian baroi bat aberatsa eta akats gabea, Hephestoren sazerdotea, Dares zeritzana; eta haren seme ziren Phegeo eta Ideo, konbate mota guztietan trebatuak. Hauek gurdi berean zihoazen; eta euretarrengandik bananduz, Diomederekin itxi ziren, zeina zain zegokien lur gainean zutik. Aurrez aurre aurkitu zirelarik, Phegeok bota zuen lehenik lantza luzea, zeina igaro baitzen Tideidaren ezkerreko sorbalda gainetik zauritu barik; jaurtiki zuen honek berea eta ez zen alperrik izan, ezen iltzatu zion hari bularrean, titien artean, eta lurrera bota zuen. Ideok jauzi egin zuen lurrera, gurdi magnifikoa desanparatuz, bere anaiaren hilotza defendatzen atrebitu barik -ez zen libratuko heriotza beltzetik-, eta Hephestok atera zuen bizirik, laino astunean estaliz, aita zaharra nahigabetu ez zedin larregi. Tideo magnanimoaren semea corcelez apoderatu zen eta bere kideei entregatu zizkien ontzi biribiletara eraman zitzen. Teukro altiboek ikusi zutenean Daresen seme bat ihesi zetorrela eta bestea gurdien artean hilik geratzen ze-

la, denei ukitu zitzaien bihotza. Eta Ateneak, hontz begiduna, eskutik hartu zuen Ares sumindua eta hitz egin zion esanaz:

Atenea.- Ares, Ares, hiltzaile zorigaiztokoa, hilketaz zikin-  
dua, harresien suntsitzailea; Ez ote dugu utziko teukrotarrak  
eta akeotarrak bakarrik peleatu daitezen- izan daitezela hauek  
edo horiek Zeusek gloria eman nahi dienak- eta erretiratuko  
gara, Zeusen koleratik libra gaitezen?.

Hau esanik atera zuen borrokatik Ares sumindua eta Esca-  
mandroaren ertz belartsuan eserarazi zuen. Danaotarrek ihe-  
sean ipini zituzten teukrotarrak, eta euren buruzagietatik  
bakoitzak gizon bana hil zuen. Agamenon gizonen erregeak  
hasi zuen gurditik botaz Odio handia, halizonen buruzagia;  
ihes egiteko itzuli zelarik, sartu zion pika bizkarrean, sorbal-  
den artean, eta muturra bularretik atera zen. Jausi zen gudaria  
zalapartaz eta beraren armak durundi egin zuten.

Idomeneok bizia kendu zion Festori, Boro meoniarraren  
semea, Tarne emankorretik iritsia zena, zeina zauritu baitzuen  
lantza zorrotzez eskumako sorbaldan, gurdira igotzen zelarik:  
lurra jo zuen Festok, ilunpe ikaragarriek inguratuz zuten eta  
Idomeneoren zerbitzariak armadura kendu zioten."

Iliadaren pasarte laburra ematen dut, baina nik edukazio  
basikoan hori, liburu hori, estudiantzea gomendatuko nuke, eta  
ez bakarrik behin irakurriz baizik eta hamaika bider ere,  
buruz ikasi arte. Eta borroka eta gerra mota guztietan entrena-  
tuko nituzke umeak, soldadu unibertsalak izan daitezen (pe-  
likulan bezala).

Koherenteak bagara zer gutxiago!. Eta edukazio tragikoa  
emango nioke neure semeari, Nietzsche gazteak esango zuen  
moduan.

Nietzsche gaixotuak edukazio prusianoa ere proposatuko  
zuen, pentsatzen dut nik. Eta edukazio mota hau, nik kritika-  
tzen dudana argiro, faxistek ere oso inportantetzat dutela erra-

nen nuke. Erljioa ere holakoa izanen litzateke (hemen kristautasunetik aldendu egingo lirateke eta gure etsai izango lirateke).

Erljio kristauaren doktrinak, nik uste, ez luke edukiko posibilitate minimorik ere errealitatean jartzeko, bekatariak garen arren, gerra unibertsala balitz egiazki. Eta gerra unibertsal bihurtze horiek ongiaren ukazioa ere badira, eta ongiaren ukazioa onartezina da, bistan dagoenez.

Eta unibertsal bihurtzen dituztenak gerra eta borroka mota guztiak nik, adibide honekin, absurdoan uzten ditut.

Nola nahi ere oso interesgarria deritzot halako debateak euskaldunen artean zabaltzeari, eta baita mundu zabalean ere. Baina ez taberna zuloetan, non deus onik ez den ateratzen.

*Roman Garmendia*